

AITA KANDIDO IZAGIRRE O.F.M. IL DA

1967-ko Irailaren 12-an Arantzazun il zan. Luis Mitxelena, berri triste au jakiñarazi nionean, onela erantzun zidan: «Euskal dialektologorik onenetakoa galdu dugu, Bonaparte-ren antzekoa, bista mikroskopikoa zorrotzago zuena, Schuchardt-ek esango zukean bezala, makroskopikoa baiño».

Aita Kandido Urretxuan jaio zan, 1913 urtean, Ipiñarrieta jauregian, ain zuzen ere. Apaiz ikasteak frantziskotarretan egin zituen. 1928 urtean praille sartu eta 1937-an meza berria eman zuen Mutikoen latin irakasle izandu da, bai Foruan eta bai Arantzazun.

Euskalkien berezitasunak eta toki jakin bateko euskera modua aztertzen gaillurtu zan. Lan mueta ortarako bear diren arimako doaeiz ornitua zegoen: pazientzia, irau-pena, zeaztasun gose andia. Dozena erdi bat txosten utzi digu Boletínean, Euskera-n eta Anuario del Seminario Julio de Urquijo agerkarietan. Erronkari, Ultzama, Altsasu eta Tolosako euskera moduez dira txosten oiek; baita Oñatiko liñagiñen iztegitxoa ere eman zuen.

Baiña aren obra nagusia, aren bizitzako zati andi bateko lana, bukatu gabe gel-ditu da: Arantzazu inguru ontako euskera moduaren azterketa oso eta sakona. Txar-telak eundaka utzi ditu, gure baserrietako agure eta amona zaharrei artutako gaiekin. Egunen batean gai guzti oiek argia ikusiko al dute!

Gizon umilla eta ixilla zan, ezer gutxikin bizitzen ikasia (Gaurko egunean ez da jakinduri makala!). Txori-zale aparta ere ba zan, eta makíña bat gauza zekian oietaz. Arantzazuko baserriarrek ez dute berealakoan abaztuko Aita Kandido. Euskeraren aitzakiz adiskide min egin baitziran berearekin.

AKI letrekin izenpetzen zituen bere lanak (Aita Kandido Izagirre).

Goian bego gure Aita Kandido maitea!

A. Luis Villasante

ANDIMA IBIÑAGABEITIA IDOYAGA (1907-1967)

Euskaltzaindia'ren laguntzaille zan Andima Ibiñagabeitia'ren il-berria izan dugu Caracas'tik. Aspalditik erbesteterurik, azken urte auetan Venezuela'ko uri nagusian lizi zen. Berakin euskerak langille leial bat galdu du eta guk adiskide on bat.

Bizkaiko Elantxobe'n jaioa zan 1907'ko ilbeltzaren 26'an. Batxilerra Tudela'n estu-diatu zuen. Gero, eleiz ikastaroak: Humanidadeak Loyolan; filosofia, matematikak eta izadi-jakintza Oña'n; Teologia, Ius kanonikua eta abar Marneffe'n (Belgique).

GAZTETXO asi zan euskeraz idazten, Loyolan Humanidadeak ikasten egoan denbora aretan, eta geroztik euskerazko aldizkaririk geienetan idatzi du, batez ere «Euzko-gogo», «Euzko-Deya», «Gernika», «Alderdi», «Egan» eta abar. Eta, Caracas'en asi berri zen «Eman...» aldizkariaren euskerazko saillaren zuzendaria. Iñoiz, Elentxu, Norbait eta Idoyaga izenordeekin argitaratu zituen bere lanak.

Erderaz, *Aprenda el vasco en 60 horas* idatzi zuen, aspaldi Zarautz'ko Itxaropenak argitara emana. Eta, bere euskerazko liburuak: *Euskera irudi-bidez* (Euskera básico), Paris'en 1953'an; Bergili'ren (Virgilio) *Unai-kantak* (Bukolikon) eta *Alor-kantak* (Georgikon) euskeratu zituan, Bilbon 1966'an argitaratuak izan dira Bergili'ren *Idaz-lanak osorik* izenezko liburuan, Aita Onaindia'k itzulitako *Enearena*'kin batean. Benavente'ren *Abere indarra* (La fuerza bruta) antzerkia euskeratu zuan, 1951'an Guatemala'ko «Euzko-gogo»n argitaratua.